

## BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1988

*EBAZPENA, 2023ko apirilaren 5ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez Equipare Koop. Elk. Txikia enpresari berritu egiten baitzaio enpresa eta entitateei emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa.*

Ekainaren 8ko 105/2004 Dekretuaren bidez (2004ko ekainaren 30eko EHAA, 123. zk.), enpresa eta entitateei emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko aholkularitza-entitateen homologazioa arautu zen, batetik, gizarte-eragileen bidez enpresetan ekintza positiboko neurriak garatu daitezzen sustatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen, eta, bestetik, aholkularitza-zerbitzuen kalitatea, eraginkortasuna eta profesionaltasuna bermatzeko. Dekretu hori aldatu egin zen abenduaren 28ko 348/2010 Dekretuaren bidez (2011ko urtarrilaren 13ko EHAA, 8 zk.).

105/2004 Dekretuaren 9. artikuluan ezartzen denez, homologazioek hamabost urteko iraunaldia dute, eta homologazio-ebazpen berri batez berritu behar dira.

Ekainaren 8ko 105/2004 Dekretuaren 10. artikulua aplikatuz, homologatuta dauden entitateei Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak segimendua egiten die urtero.

Azaldutakoan oinarrituta, eta aipatutako entitateak erakunde honetan aurkeztu duen dokumentazioa berrikusita, egiaztatu dugu Equipare Koop. Elk. Txikia enpresak konplitzen dituela aplikatzekoa den araudian exijitzen diren betekizunak.

Horrenbestez, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Enpresei eta entitateei emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa bost urtez berritzea Equipare Koop. Elk. Txikia enpresari, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hasita, ekainaren 8ko 105/2004 Dekretuan ezarritako moduan eta baldintzetan.

Bigarrena.– Homologazioaren berritzea Aholkularitza Entitate Homologatuen Erregistroan (Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikian) inskribatzea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2023ko apirilaren 26a, asteazkena

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 5a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria,  
MIREN ELGARRESTA LARRABIDE.